

# In memoriam: Iñaki Beristain eta Andoni Lekuona

---

KARLOS DEL OLMO

EIZIEko bi bazkide hil ziren 2017an: Iñaki Beristain (1947-2017) eta Andoni Lekuona (1932-2017). Ohorezko bazkide izendatuak zituen elkarreak aspaldidanik biak, euskal itzulpengintzaren garai zailagoetan eginiko lan eskergea ohorez eta ospez saritu nahian, besterik ezean. Iñaki Beristainek erlijioaren inguruko testuak itzuli zituen, batez ere. Andoni Lekuona, berriz, atzerriko poemak eta kantak euskarara ekarri izateagatik da aipatzekoa, denetarik itzuli bazuen ere.

## **Iñaki Beristain (1947-2017)**

Apaiztu ondoren, 1967tik Arantzazuko Santutegian egon zen. Erakunde horren bozeramaile aritu zen luzaro. Besteak beste, *Arantzazu* aldizkariaren zuzendari ere izan zen, eta EiTbko *Egi bidean* saioaren ardurduna, 1988tik.

Gaztetatik hasi zen euskaraz sortzen. Erriberrin (Nafarroa) zela, *Gure izarra* aldizkarian jardun zuen, eta, ondoren, *Jakin* aldizkarian ere. 1968an, euskara batuari bu-

ruzko biltzarra egin zenean, hantxe izan zen Beristain.

Itzulpengintzan ere lan handia egina da, bai frantziskotar ordena barruan bai euskal elizbarrutietan. Lan hori aitortze aldera, hain suertez, izendatu zuen EIZIEk ohorezko bazkide, 2002an.

Zendutako bazkidea omentzeko modurik onena, honako honetan, ez da hark itzulitako testu bat, baizik eta hil baino hilabete arinago bere blogean idatzi zuen sarrera bat, harreman estu-estua baitu heriotzarekin.

Garizumako 5. igandea: Bizi egin nahi<sup>1</sup>

'A' txandako irakurgaietan, emakume samariarrenaren eta jaiotzez itsuarenaren pasadizoen ostean, Lazaroren berpiztearena datorkigu. Eta gordintasun gorrienarekin, heriotzaren aurrean jartzen gaitu gertaerak. Inork alde batera utzi ezingo duen esperientziaren aurrean jartzen gaitu. Hil egin behar da, eta hori gogorra da. Hil egin behar dut, eta hori gogorragoa da.

Gaurko gure kulturak ez dio heriotzari erreparatu nahi. Gizakiari ez dagokion estropezu bezala ikusten dugu, ustegabeko istripu. Hori gertatzean, ahalik eta azkarren ezkutatu eta, inolaz ahal balitz, ahaztu. Ez du heriotzaz hitz egin nahi. Sekula gertatuko ez balitzagu bezala bizi nahi dugu. Inoiz hil behar ez bagenu bezala edo betirakoak izango bagina bezala. Hori geure burua engainatzea izango da, baina zer egingo da ba? Bizi nahi baldin badugu, heriotza ahaztu beharra daukagu. Sufritu ezina gertatuko litzaiguke heriotzaren argitan bizi beharra.

Baina, heriotza gure ondoan dabil «kortejatzen». Gaixaldiak bere erasana erakusten duenean, argi gorri guztiak pizten zaizkigu. Larria ote da, arina ote da? Analiak egin eta emaitzak ezagutu bitarteko txangoa ez da batere gozoa izaten. Orduan jartzen gara pentsatzen beharbada oso hauskorak garela, hari batetik gaudela zintzilik, ez daukagula inolako segurtasunik. Eta orduan jakiten du batek zer nolako gogoia daukagu bizitzeko. Ez dugun hil nahi eta bizi egin nahi dugu.

Gaixaldia arina dela? Sabeletik arnasa hartu eta aurrera egin dezakezu: zeure

proiektuak, zeure ilusioak, zeure ametsak... Kasu horretan amets gaizto bat besterik ez da izan. Baina eta gaixotasuna larria baldin bada, zure hori minbizia baldin bada? Orduan dena gainera erortzen zaigu pisu astunez eta geure barruko galdera guztiak azaleratzen zaizkigu: zergatik?, zergatik niri?, zergatik orain?, ez al dago ezer egiterik?, hil egin behar al dut?, eta nire ondokoak zer?

Esperientzia horrela da, astuna bezain ziurra. Berdin da kultura batekoa edo bestekoa izan, fede batekoa edo bestekoa izan. Gaur ez bada bihar, hil beharra! Ez dago ihes egiterik! Eta horraino iristen dira gure hitzak eta jardunak. Heriotzaren aurrean hitz guztiak hutsak dira. Aholkuak gorrotagarriak akaso. Hitza hustu egiten da. Zer egin daiteke orduan? Zer da orduan egiteko egokia? Zeri heldu?

Jesusek, bere adiskide Lazaro hil zela eta haren arreben mina sumatu zuenean, «negarrari eman zion». Juduek ere antzeman zioten asko maite zuela, negarrez ikusi zutenean. Heriotzak pena ematen du, samina sortzen du, heldulekurik gabe uzten zaitu. Eta barrua lehertu egiten da. Ezinaren ezinean negar bihurtzen zaizkigu sentimenduak. Eta, noski, heriotzaren aurrean negar egitea libre da eta normala da. Jesus berak ere nekez ulertzen zuen, Jainkoaren asmoen eta hil behararen artean zegoen tarte handi-zabala. Jainkoaren asmoa ez zen gizakia hiltzea!

Baina, Jesus ez da negarretan geratzen. «Gaixotasun hau ez da heriotzean bukatuko». Jesusek bere uste ona erakusten du. Jesusek badaki Jainkoak gizakiaren bizia nahi duela, beste edozeren gainetik. Jainkoak ezin duela onez eraman gizakiaren he-

1. <http://iberistain.org/garizumako-5-igandea-bizi-egin-nahi/>

riotza. Denok hil behar dugu; Jesusek ere bazekien laster gurutzean hil beharko zuela. Baina Jesusen konfiantzak argi ikusten du Jainkoaren bizi-dohaina heriotza baino indartsuagoa dela, eta heriotzari nagusitu-ko zaiola betiko.

Hori geure esperientziara ekarri, eta hor dago errealitatea: egunen batean heriotzak gure etxeko aldaba joko du. Ez da atzerabueltarik egongo. Oso gogorra izango da une hura. Ezinaren garrasi bihurtuko da dena. Baina, Jesusengan sinesten duenak edukiko du zeri heldua, eta Jainkoaren dohainari helduko dio gerri-gerritik. «Gai-xotasun hau ez da heriotzean amaituko». Jainkoak bizia maite baitu. Eta guk bizi egin nahi!

### **Andoni Lekuona (1932-2017)**

Parisen soziologia ikasketak egin zituen. Luzaro, *Zeruko Argia* aldizkarian idatzi zuen. Soziologoa izan arren, artea etxean bertan ezagutu zuen: Julen, anaia, kantautorea zen;

Juan Mari, berriz, poeta, eta osaba Don Manuel idazle emankorra. Hortaz, harengan ere piztua izan zen arte joera. Era askotako kantuak itzuli zituen Andoni Lekuonak, eta beti begiratzen zuen kanpora euskaratzeko kantuak aukeratzeko orduan.

Andoni Lekuona aurrez aurre izan nuen EIZIEk Juan Mari Lekuona omentzeko Oiartzunen antolatu zuen ekitaldi batean. Juan Marik itzultako poema liburu bat izan zen aitzakia, hain suertez: Clara Janésen *Enblemak* (EIZIE, 2010). Eguna gogoangarriago bihurtu zuen Xabier Lete gau hartan bertan zendu zela jakiteak, ekitaldiaren berri ba omen zuelako. Segidan eskaintzen dugun poemaz hitz egin zidan Andonik, hura itzuli zuen garaiaz, euskal musikaz, itzul-pengintzaz, poesiaz... Hortaz, hona hemen hitzaldi hartan berberak maitasun berezi halako batez aipatu zidanetako bat, Imanol Lartabalek kantatu<sup>2</sup> eta Andoni Lekuonak itzultako poema hau<sup>3</sup>, ikus-entzunezko omenaldi moduan.

---

2. <https://www.youtube.com/watch?reload=9&v=-OWRl2JcvfE>

3. *Itzulpen Antologia III* liburuan (EIZIE, 2002) argitaratu bezala ekarri dugu orriotara.

## Zer naiz ni zu gabe?

*Hitzak: Andoni Lekuona*

*Musika: Jean Ferrat*

Errepika: Zer naiz ni zu gabe,  
maitasun nerea?  
Zer naiz ni zu gabe?  
Zurezko bihotza;  
geldirik dagoen  
erlojo tristea.  
Zer naiz ni zu gabe?  
Ikara ta otza!

Koplak:

- 1 Zugandik dakit nik  
mundua maitatzen  
ta guztia dakus  
gaur zure argitan.  
Horla iturrian  
ura da xagutzen;  
zeruko izarrak  
pozez irakurtzen;  
oihuka erantzun  
oihuei menditan.  
Zugandik dakit nik  
bizitzen pozetan.
- 2 Zugandik dakit nik  
ta daukat barruan:  
eguardiz dela egun,  
urdiña zerua;  
poza ez dagola  
taberna-zuloan.  
Eskutik hartuaz  
gaurko inpernuan,  
agertu diazu  
maitasun beroa,  
agertu diazu  
luzatuz eskua.
- 3 Zoriona aitatur  
maiz triste begiak.  
Naiz besterikan ez,  
malkotxo galdua;  
Hitz bitan esan-da:  
gitar-garrasiak.  
Baina dizdiz daude  
zorion-izpiak.  
Aitortzen dizutet,  
onartuz mundua,  
ez dela amets hutsa  
maitasun-kantua.

## Que serais-je sans toi?

Poème de Louis Aragon

Refrain: Que serais-je sans toi,  
qui vins à ma rencontre.  
Que serais-je sans toi,  
qu'un coeur au bois dormant.  
Que cette heure arrêtée  
au cadran de la montre.  
Que serais-je sans toi  
que ce balbutiement

Couplets:

- 1 J'ai tout appris de toi  
sur les choses humaines;  
et j'ai vu désormais  
le monde à ta façon.  
J'ai tout appris de toi  
comme on boit aux fontai-  
nes;  
comme on lit dans le ciel  
les étoiles lointaines;  
comme au passant qui chante  
on reprend sa chanson;  
j'ai tout appris de toi  
jusqu'au sens du frisson.
- 2 J'ai tout appris de toi  
pour ce qui me concerne:  
qu'il fait jour à midi,  
qu'un ciel peut être bleu;  
que le bonheur n'est pas  
un quinquet de taverne.  
Tu m'as pris par la main  
dans cet enfer moderne,  
où l'homme ne sait plus  
ce que c'est qu'être deux.  
Tu m'as pris par la main  
comme un amant heureux.
- 3 Qui parle de bonheur  
a souvent les yeux tristes;  
n'est-ce pas un sanglot  
que la déconvenue.  
Une corde brisée  
aux doigts du guitariste.  
Et pourtant je vous dis  
que le bonheur existe;  
Ailleurs que dans le rêve,  
ailleurs que dans les nues.  
Terre, terre voici  
ses rades inconnues.

### Resumen

Dos fueron los miembros de la asociación EIZIE fallecidos en 2017: Iñaki Beristain (1947-2017) y Andoni Lekuona (1932-2017). Ambos habían sido ya nombrados miembros honoríficos de la asociación, en un intento de premiar, aunque solamente fuera con el reconocimiento y la fama, la labor que desarrollaron en tiempos más difíciles para la traducción al y desde el euskara. Iñaki Beristain tradujo, sobre todo, textos religiosos. Andoni Lekuona trasladó todo tipo de textos, pero son muy conocidas sus traducciones de poemas y canciones de otras lenguas al euskara.

### Résumé

Au cours de l'année 2017, l'association EIZIE a perdu deux de ses adhérents : Iñaki Beristain (1947-2017) et Andoni Lekuona (1932-2017). Tous deux faisaient partie depuis longue date du groupe des membres honoraires de notre association. Titre qui leur avait été accordé en reconnaissance de leur inestimable travail réalisé dans le domaine de la traduction vers et à partir de l'euskara, dans des moments où l'exercice de cette activité était fort difficile. Iñaki Beristain a principalement traduit des textes religieux. Le répertoire d'Andoni Lekuona est plus varié, mais ce sont ses versions basques de chansons et de poèmes écrits en d'autres langues, qui sont les plus connus.

### Abstract

Two members of the Association of Translators, Correctors and Interpreters of the Basque Language (Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretteen Elkarte, EIZIE) died in 2017: Iñaki Beristain (1947-2017) and Andoni Lekuona (1932-2017). Both were long ago named honorary members of the association as a way of recognizing and honoring the work they carried out in more difficult times in translation from and into Basque. Iñaki Beristain primarily translated religious texts, and although Andoni Lekuona translated all sorts of texts, he is best known for his translations of poems and songs from other languages into Basque.